

noaua



"HERIOTZAZ HITZ EGIN BEHAR DA, BIZI-ITXAROPENA HANDIA IZAN ARREN"

"Heriotzaren pedagogia: begirada berri bat beldurretik maitasunera" jardunaldia egin zuten azaroaren 8an Sutegin / 6-7. or.

ARGAZKIA: NOAUA



IKASKOLI.EUS

**Saski bat erosituz,
Zuberoan dauden bi
ikastolak laguntzeko
aukera dago** / 08



NOAUA

**Bizkarreko skate
parkeko berritze
lanak kaltetu
dituzte** / 11



GOIENA

**Nafartarrak
taldearen kultur
hamabostaldia
hastera doa** / 12



NOAUA

**Larunbat honetan,
umeentzako
ikuskizuna
Txokoalden** / 22

ANDATZA TABERNA

EGUNEKO MENUA
ASTEBURUKO MENUA
KARTA
RAZIOAK
OGITARTEKOAK

8:00-21:30 Asteartea eta asteazkena
8:00-22:30 Osteguna eta igandea
8:00-23:30 Ostirala eta Larunbata

Kalezar Auzoa 12, 0B, USURBIL 943732027



Marruecos

IRTEERA 2026ko maiatza



Noaak gidatutako
talde bidaiak.
Lasarte-Oriatik irtenda.


943 37 36 13 • info@noaa.eus • Hipodromo Etorbidea, 10 • Lasarte-Oria



USURBIL
O P T I K A

4 Urteko
Garantia

Interes
Gabeko
Finantzaketa
*Banketxeak onartzean



**PILARIK
GABEKO**
TEKNOLOGIARIK
AURRERATUENA

Entzumen
azterketa
DOAN

Entzun
telebista

eta mugikorra
zure audifonoetan

943 37 02 69

ZUBIAURRENEA 10, USURBIL usurbiloptika@hotmail.com



KARABANAK



NAUTIKA

KARABANAK

Bigarren eskuko salmenta, konponketak eta mantenua
24 orduz hibernatzeko zerbitzua
Alokairu zerbitzua

NAUTIKA

Salmenta, konponketak eta mantenua
24 orduz hibernatzeko zerbitzua
Alokairu zerbitzua

Intxaurreta z/g, Aginaga, Usurbil - Tel.943 362 660
www.noraianautika.com - info@noraianautika.com

Oinez, elkar ezagutuz

Gipuzkoako jubilatutako eta pentsiodunek XXXIII. martxa osatu zuten aurreko astean, Tolosaldean. 400 lagun inguru bildu ziren, Tolosatik Ibarra-ra joan etorria egiteko. 28 Kanalean dioten moduan, "egitasmo honek bi ardatz nagusi izan ditu: elkar ezagutzea eta mugikortasuna sustatzea".

Usurbilgo Gure Pakea eta Aginagako Arrateko kideek argazki bana igorri digute.



Gipuzkoako jubilatutako eta pentsiodunen 33. martxa ospatu zen aurreko ostiralean Tolosan eta Ibarra. Ezkerretara, Gure Pakeakoek bidalitako argazkia. Eskubikoan, Aginagako Arrateko hainbat lagun.



Garbigune mugikorra, Zubietan

Atallukora joan ezin dutenei, zerbitzu hau gerturatzen dien Udalaren garbigune mugikorra Aginagatik Zubietara lekuz aldatuko dute azaroaren 13an eta bertan izango dute aste-betez, azaroaren 20ra arte. Gero, Txokoaldera eramango dute eta bertan egongo da beste astebetez.

Mutrikuko olatu plantara txangoa

Sortalde, Usurbilgo energia komunitateak antolatutako irteera. Azaroaren 15ean, 9:00-14:00 artean. Autobusa Bordatzoko biribilguneetik abiatuko da. "Mutrikuko olatu planta, olatuen energia aprobetxatzen duen Europa osoko lehenengo planta komertziala da". Izena emateko sortalde.eus atarira jo.

1972. urtean jaiotakoak abenduan elkartuko dira

Abenduaren 6an Patri jatetxean batuko dira. Izena emateko, 50 euro sartu behar dira (izen abizenak jarrita), ondorengo kontu korrontez zenbakian: 3008 0148 6055 9364 1623 (Rural Kutxa). Izena emateko azken eguna, azaroak 30. Informazio gehiagorako edo zalantzak argitzeko: 649 008 980.

Kudeatzaile berri bila, Santueneko Gure elkartearen

Kudeatzaile berri bila dabil Usurbilgo Udala Santueneko Gure Elkartea jubilatuen bilguneko tabernarako. Interesdunek azaroaren 20ra arte aurkeztu ahaliko dituzte proposamenak, aurreko esleipena irailan amaitu ondoren. Ordutik, iraila amaieratik itxita dago taberna.



Argitaratzailea:
Noaua Kultur Elkartea
Bordaberri 3, Eguzkitzaldea
20.170 Usurbil
943 360 321
elkartea@noaua.eus

Elkarteko lehendakaria:
Ugaitz Agirre.
Aldizkariko koordinatzailea:
Imanol Ubidea.
Kudeatzailea:
Alaitz Aizpurua.

Erredakzio Batzordea:
Aritz Lasarte, Asier Gonzalez de San Pedro, Imanol Ubidea.
Diseinua: Goienna.
Publizitate arduraduna:
Ane Ibargoinen.

Tel.: 943-360 321
publizitatea@noaua.eus
Banatzailea:
Iban Maribalar.
Lege Gordailua: SS-668-96.
ISSN: 1136-6818.

Tirada: 3.050 ale.
Imprimategia:
Antza inprimategia. Zirkuitu ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.
Harremanetarako:
erredakzioa@noaua.eus



Gipuzkoako Foru Aldundia



Usurbilgo Udala

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

IRITZIA



UGAITZ AGIRRE

Zeruak eta lurrak (13)

Troia ondo armatuta zegoen. Alaitzek estraperloan eskuratu zituen beste hainbat kiderekin batera, egun handia noiz iritsiko zain. Kaxkotik urrun, baserrietako ganbara eta ukuiluek bolbora usaina zeukaten.

Deia aski azkar zabaldu zen itzalean barrena, eta harri azpietatik ere agertu ziren markesari aurre egiteko prest zauden denak. Egur moztuekin barrikadak altxa zituzten, eta baserriaren perimetroatik harresiak inguratuta zeukalazirudien. Neska-mutil gazteek arma eskutan, markesari bereak eta bi itzultzeko amorrazioz borbor-kazeuden. Zer uste zuen, herria berea zela?

Kalezar goialdeko mugimenduak jabetu zirenean, markesaren irak norabidez aldatu zuen, eta bere segizio guztia Txara gaineko belazeetara eramane zuen. Ahots irmoz zuzendu zitzaizen Troian bildutakoak, matxinada haren esanahia jakin nahi zuen. Laster asko izan zuen erantzuna: "Zure alaba Helena daukagu hemen. Hobe duzu tontakeriarik ez egin gauzak okertzea nahi ez baduzu". Alabaren izena entzun orduko itsutu zen markesa, gainerako guztia ezeren pareko zitzaion. "Lapur matxino aluak! Ederki ordainduko duzue hau!" Gizonak bidali zituen baserrirantz, baina segituan topo egin zuten egurrezko harresiarekin. Bestaldean zeudenek ohartarazi zieten urrats bat gehiago eta tiro egingo zutela, baina hiri-

burutik etorritako guardiak entzungor egin ziren gomen-dioari. Lehen tiroak entzun ziren, bai eta lehen odol tantak isuri ere lur gainera.

"Uste genuena baino hobeto antolatu dira zomorro zikin horiek. Plan bat behar dugu, markesa jauna". Hala jakinarazi zion guardiaren buruak. "Gizon gehiagori hots egin. Hor bildutako arratoiek ez dute bake santurik izango! Elkarren artean jan beharko dute biziraun nahi badute", izan ziren markesaren aginduak.

Trenez bidaliko zuten mezua Donostiara, baina bitartean, kanpamendua muntatzeko agindu zien han zeuden hamarnaka gizonei. Familiako apaizak eman zien azken be-deinkapena tiro gurutzaketan erori ziren hiruzpalau horiei. Ondoren, nagusiarengana gerturatu zen. "Eskuetatik joan zaizunaren ustea daukat", ohar egin zion. "Sermoiak ematea ederki gustatzen zaizu zuri. Espero ez zarela horrela ibiliko burdeleko gaztetxoekin. Ez jarri aurpegi hori, inor ez da nire zaintzapetik libratzen". "Kon-

"TXARAKO ZELAIETAN ERROMATAR KANPALEKU BAT ALTXATU ZUTELA ZIOTEN HERRITARREK AHOPEKA"

tuak kontu, negoziatzea ez al da hobeto izango?" Zomorroe-kin negoziatzea denbora galaratzat hartzen zuen, eta ez zuen amore emango haren desirak konplitu arte.

Txarako zelaietan erromatar kanpaleku bat altxatu zutela zioten herritarrek ahopeka. Egoeraren larria umorez hartzen zuenik bazen, alajaina. Agamenon greziarraren pareko egiten zuten markesa beste batzuek. Baina izen handiek ezzuten lagundugaeen. Amesgaizto batek izerdi patsetan eduki zuen gizona. Haren mundua erortzeaz zela birritan amestu zuen. Lehenik premua, gero alaba txikia... Ez zion begirunerik alaba zaharrari, baina bazekien azpi jokoetan azeria bezain azkarra zela. Leinua gidatzeko zuhurtzia falta zitzaioela uste zuen, hoztasun beldurgarriak ez zuen eta amaiera gozorik inoiz. Abagune hura edozer egiteko aprobetxatuko zuelakoan zen, eta badaezpadakoan, haren ondora ekartzeko agindu zuen, baita senargaia ere. Hari ez zion inolako begirunerik. Ahobero huts bat zen, eta gainera, haren erruz akabatu zioten semea. Mespretxurik gorriena merezi zuen, baina etsaiak lagunak baino gertuago edukitzeko esan ohi du esanak.

Egunsentiarekin batera ekarri zituzten biak kanpamendu hartara, eta markesak soldadu garaiko jantziarekin hartu zituen. Gudarostea osatuko zutenak ere bidean behar ziren. Troiakoa gerra zen.

Poltsa berrerabilgarri gehiago

1.000 poltsa berrerabilgarri banatu dituzte herriko 29 saltokitan, "bezeroen artean bana ditzaten". Udaletik gogorarazi dutenez, "eguneroko keinu txikiek lagun dezakete hondakinen sorrera gutxitzen, eta hori da, hain justu, poltsa berrerabilgarrien helburua".

Emozioen kudeaketari buruzko saioa


"Gure emozioak kudeatzen, seme-alaben bidelagun izateko" izeneko hitzaldia azaroaren 5erako iragarri zen, baina hitzordua atzeratu dute. Saioa abenduaren 1ean izango da, 17:30ean Potxoenean.

Sendabelarren tailerra Txokoalden

Txokoargi elkarteak, azaroaren 28an eta abenduaren 12an, 17:30ean hasita. Leire Lazkanok bideraturiko saioetan 12 laguntzako tokia egongo da. Prezioa, 20 euro. Izena emateko, deitu hona: 619 591 849.

Gure Zirkua, Urbilen

Azaroaren 14tik 29ra bitarteko sarrerak agortu ostean, beste sei saio antolatu dituzte Urbilgo aparkalekuan: azaroaren 30ean (12:00/17:00), abenduaren 5ean (19:00), 6an (12:00/18:00) eta 7an (12:00). Txartelak gure zirkua.eus atarian eskuratu ahaliko dituzue.





Usurbil etxebizitza merkatuko tentsio handiko eremuan txertatu dute. Hiru urterako indarraldia izango du neurri horrek.

Usurbil, eremu tentsionatua ofizialki

Etxebizitza merkatuko tentsio handiko eremuan da Usurbil, urriaren 31z geroztik.

ARITZ LASARTE

Urrats hau ematea falta zen ofizialki indarrean jartzeko eta urriaren 30ean ezagutarazi zuen Espainiako Gobernu-ko Etxebizitza eta Hiri Agenda Ministerioak Estatuko Aldizkari Ofizialaren bidez. Biharamunaz geroztik, Usurbil etxebizitza merkatuko tentsio handiko eremuan txertatu dute behin betiko, Gasteiz, Bilbo eta Astigarragarekin batera. Hiru urteko indarraldia izango du neurri horrek. Etxebizitzaren jabetza duten edukitzaile handiak zeintzuk diren, horren definizioa ere kaleratu

zuten; bizileku gisa erabilitako bost higiezin edo gehiagoren (garaje eta trastelekuak salbuetsiak daude) jabe fisiko edo juridikoak izango dira hain zuzen. Definizio horretatik salbuetsita daude, administrazio publikoaren jabetzakoak diren bizilekuak.

Gogoan izan, Usurbilgo Udalak izendapen hori eskuratzeko eskaera egin ziola Eusko Jaurlaritzari martxoa amaieran. Baiezko erantzuna, irailaren 12an argitaratu zuen Eusko Jaurlaritzak. Lehenago, Etxebizitza eta Hiri Agenda saileko sailburuak iragan abuztuaren

21ean jakinarazi zion ministerio horri, Usurbil etxebizitza merkatuko tentsio handiko eremu gisa izendatuko zutela. Aipatu izendapena indarrean jartzearekin batera, alokairu prezioak kontrolatzeko bi mekanismo aktibatuak daude. Batetik, Espainiako Gobernu-ko Etxebizitza eta Hiri Agenda Ministerioak ezarritako alokairuaren erreferentzia-indizea, kasuotan aplikatuko dena: edukitzaile handien jabetzako etxebizitzaren kontratuaren (5 etxebizitza edo gehiago eremu tentsionatua), etxebizitzaren merkatuan lehen aldiz sartzen diren higiezinaren kontratu berrietan edota azken 5 urteetan alokatu gabe egon diren etxebizitzaren kontratu berrietan. Bigarrenik, alokairu-errenten eguneratze-indizea (IRAV) delakoa legoke. Tentsionatutzat jotako eremuetako alokairu kontratuei aplikatzen zaie, eta KPIa ordezkatzeko, kontratua indarrean dagoen bitartean errenta urtero be-

rrikusteko, maizterra igoera handietatik babestuz. Errentaren urteko berrikuspenera ere zabaltzen da, kontratua indarrean duten maizterrek erabil dezaketzen ezohiko luzapen-aldian. Alokairuen prezioetan eragiten du. Izan ere, prezioak mugatzen ditu edota prezioak mantentzea kontratu berritzeetan.

Usurbilgo Udalak erabaki hau berrestearekin batera, gogorarazi du proposatua diola Eusko Jaurlaritzaren Etxebizitza eta Hiri Agenda Sailari udalerrri honetako "bi eremuren garapenerako hitzarmena sinatzea: Pikaola eremuan, udala lurzorua %54ren jabe da, eta bertan 30 etxebizitza sozial egiteko aukera dago, eta Agerrazpin, 30-35 zuzkidura etxebizitza egiteko aukera. Bi eremu horiek lehentasunezko zatik joak ditu udalak".

Estekak

Informazio gehiago bideotatik jaso dezakezue: usurbil.eus (Udalak landutako diagnosis, memoria eta etxebizitza-plana); eremutentsionatua.euskadi.eus (herri tentsionatuen eta haien buruzko informazioa biltzen duen Jaurlaritzaren ataria); serpavi.mivau.gob.es (alokairu prezioen eta alokairu-errenten indizeak kontsultatzeko Espainiako Gobernuaren ataria).

"ALOKAIRU PREZIOAK KONTROLATZEKO BI MEKANISMO AKTIBATUAK DAUDE"

Artzi
Patrikuz
latexea

· bazkariak EGUNERO
· afariak ostirala eta larunbata

© 943 362725 · © 688 690 361

txirriStra
TABERNA

· PLATER KONBINATUAK
· BOKATAK · PINTXOAK

Kontseju zaharra, 13 Tel 943 36 04 66

Antxeta
TABERNA

egunero irekitzen dugu!

· eguneko menua · asteburuko menua
· oilasko erreak, ogitarteak, raziok...
· paellak enkarguz!

943 54 43 12 Zubiaurrenea 6, Usurbil.



Azaroaren 8an heriotzaz bizipozetik Sutegin jardundakoek frontoian atera zuten talde argazkia.

"Isiltasuna apurtzeko, adierazteko taldea behar da"

"Heriotzaren pedagogia: begirada berri bat beldurretik maitasunera" jardunaldia egin zuten azaroaren 8an Sutegin. Guztion bizitzaren parte dugun heriotzaz jardun zuten, hunkidura eta goxotasun handiz, bizipozetik.

ARITZ LASARTE

Heriotzaz bizipozetik aritu ziren azaroaren 8ko jardunaldian Sutegin. Isiltasuna haus-ten joan arren, oraindik, hein batean tabua izaten segitzen duen gaiarekiko jakinminak aretoa goraino bete zuen. Esperientzien trukaketaren bidez, heriotzaren gaia erdigunera ekarri zuten. Hasteko, eremu honetan ikastetxeak zertan ari diren ezagutzeko aukera eskaini zuten. Hunkidura handiko lekukotzei egin zitzairen tartea. Izan ere, ikastetxeotan izandako heriotzek gidatu dute "heriotzaren pedagogiaren" lanketa, ahal izan zuten moduan. Lantalde berezituak osatu dituzte Sutegin hitza hartutako ikastetxeek, formazioa sustatu dute, tokian to-

kiko protokoloak landu, eguneroko jardunean gaiari tartea emateko.

Hala egina dute Gernikako Allende Salazar herri eskolan, halaber, bertako ordezkariak Sutegin zioenez. Izan ere, 2020an ikasle baten bapateko heriotza kasu bat izan zuten. "Ez dakizu nora joan, bakarrik zaude bide honetan, ez dago materialik senideekin

"BAKARRIK ZAUDE BIDE HONETAN, EZ DAGO MATERIALIK SENIDEekin DOLUA LANTZEKO. EZ DAGO SARE BAT"

dolua lantzeko, ez dago sare bat". Duela bi urte osaturiko lantaldearen eta landutako protokoloaren erakusle da, adibidez, hildakoak oroitzeko azaroaren 1a baliatzen dutela "Betigure bihotzean" izeneko dinamika bideratzeko. HH nahiz LH zikloetako ikasleek hurbilean bizitako heriotzaz hitz egin eta zendutakoen argazkiekin, horma-irudia osa-

"INPLIKAZIOA HANDIA IZAN DA. KOMUNITATEA ASKO KOHESIONATU DU GAI HONEK"

tzen dute. Urretxu-Zumarragako Gainzuri ikastetxean gai hau gidatu zuena duela 8 urte bertan matrikulatzerako gaitzen Eleneren heriotza izan zen. Berak, bere senide eta irakasleetako batek eginiko elkarlanak ahalbidetu zuen Sutegin azaldu zuten, heriotzaren pedagogia "oso natural" txertatzen joatea ikastetxean. "Oso gogorra, baina oso polita" izan zela oroitu zuten. 3 urteko haurra zendu izanak eragin zuen heriotzaren batzordea osatzea. Formazioa eta protokolo bana sortu zuten, ikastetxean ikasle, langile edo senideren bat hiltzen zenerako, formazioa sustatzeaz gain. Intxaurren bat landatu ostetik, garrantzitsutzat jotzen duten agur kolektiboetarako espazioa dute. "Heriotza beti hor dago", gogorarazi zuten, egun, ordea, "badakigu nola jokatu".

Kohesiorako baliagarri

Antzeko lekukotza eskaini zuen baita Añorgako Amassorrain ikastolako ordezkariak ere. "Heriotza oso hurbiletik bizi izan dugu". Duela hiru ikasturte ikasle baten aita hil zen, haur bat iaz. Osatzen jarraitzen duten protokoloa landu zuten eta horri esker, egun guraso bilera bat izaten dute haien hezkuntza komunitatean hildakoren bat denean bizitakoa partekatze, agurra egiteko liburu bat ere eskuragarri jartzen dute, edota agur ekitaldia ere antolatzen dute hildakoa- ren omenez. Baliabideak behar dituzte, ordea. "Ibilbide osoan oso umezurtz sentitu gara. Oso baliabide urriak eta zaharkituak daude", zioen ikastetxeko ordezkariak. Zorionez, zioenez, hainbat elkarte, eskolako eta Añorgako komunitatea bidelagun izan dute. "Denon inplikazioa handia izan da. Komunitatea asko kohesionatu du gai honek", nabarmendu zuen eta fokua gaztetxoengana jarri zuen. Haiek gai honi heltzeko duten naturaltasuna baliatu beharra



Bizipoza jardunaldia osorik grabatu zuten. Laster ikusgai izango duzue, bizipoza.eus atarian.

→ dagoela gogorarazi zuen. Gai honen lanketan aitzindari-ritzat jotzen den Antzuolako eskolako esperientzia ere ekarri zuten Sutegira, kasu hone-tan, ordea, ama baten ahotik. 2019an zendu zitzaion Arane 5 urterekin, sortzez zuen kar-diopatiagatik etxean bertan. Bapateko heriotza izan zen. "Mundua gelditu zitzaigun", azaldu zuen Sutegin. Beilato-kia etxean bertan egitea era-baki zuten. Eskola hasieratik izan zuten bidelagun, "asko eskertu genuen guganako hur-biltasuna", tartean, Sutegin bertan zen hildakoaren ahiz-pa txikiarekin. Oroimenerako txokoa sortu zuten eskolan bertan, hildakoaren objektu kuttunekin. Ikasgeletan gaia jorratu zuten, agur kolektibo bat egin zuten. "Hasierako mina igarota, dena maitasun handiz oroitzen dugu". Ho-rregatik, "heriotzaren bat suertatzean, eskolak eman dezakeen laguntza" aldarri-katu zuen, gertatutakoari hitza jarri eta hildakoa oroitzeko

aukera emateko. "Oroimen partekatua sortzen lagundu dezake eskolak", bere alabaren heriotzaren urtemugetan egi-ten jarraitu izan duten moduan.

"Heriotzaz hitz egin behar da"

Bigarren mahainguruan Bizi-pozarekin bat egina duten elkarte hainbatetako orde-zkariak hartu zuten hitza. Min-tzagai zuten heriotzaren pe-dagogiak nola zeharkatzen zituzten jakin nahi zen. Usur-bilen egoitza ezaguna duen Iñurri elkarteak hartu zuen hitza. "Tabu oso handitik" osatutako bilgunea zela gogo-rarazi zuen haren sortzaile Julene Illarramendik. Ama minbiziak jota hil zitzaion eta dolua eraldatzeko beharretik sortu zuen sare erraldoia osa-tu duen iñurrien mugimendua. Udanzazpi kide zendu zaizkie, "asko ama ziren". Txikitatik landu beharreko gaia dela dio. "Ondo gaudenean heriotzaz hitz egiten badugu hobeto, gero errazagoa izango da".

Gipuzkoako Haur Minbizidu-nen Familien Elkarte ASPA-NOGIK ere presente du herio-tza, izan ere gaixotasun pro-zesuon %15-20 heriotzarekin amaitzen dira. Baina "onartzea zaila da batzuetan", Nekane Lekuonak Sutegin nabarmen-du zuenez. "Errezeta magiko-rik" ez dagoela dio, familia bakoitzaren arabera izaten dela jorraturiko bidea baina akonpainamendua gakotzat jo zuen. Haurra hil eta gero jarraitzen duena, senide horiek elkarteko kide izaten segitzen baitute. "Heriotzaz hitz egin behar da, bizi-itxaropena han-dia izan arren", Lekuonaren esanetan.

Naizen adingabe transexua-len familien elkarteak ere badu zer esanik gai honen inguruan. "Heriotza tabua bada, pentsa suizidioa", zioen bilgune-ko ordezkari Bea Severrek. Berak azaldu bezala, suizidioaren bidez dute lotura heriotzare-kin. Kolektibo horretan, "%40 inguru bere buruaz egiten saiatuko da" bere bizitzako

unereren batean. Halere, nabar-mendu zuenez, "ez dugu lo-turarik sustatu nahi heriotza-rekin". EHU-rekin sinatua duten hitzarmenaren bidez, prebentzioan eragiten dihar-dute adituekin.

Aisialdi hezitzaile euskaldu-nean eragiten diharduen Arra-sateko Txatxilipurdi elkarteak ere hartu zuen hitza jardunal-dian. Gau Beltza edota Pales-tinan bizi dutena bitarteko gisa baliatuta, heriotzaren gaia jorratu arren, gaia era siste-matizatua jorratzea erron-katzat ipini zuen elkarteko ordezkari Jone Ojeak.

Jardunaldiko ondorioen atalean, aipatzekoa antola-tzaile izandako Hil Argi elkar-teko Nere Erkiagaren hitzok. "Beldurra, min traumatikoa bakarka handiegi geratzen da, baina taldean nola aurre egi-ten zaion", nabarmendu zuen. "Isiltasuna apurtu, errua eral-datu eta maitasuna partekatzea adierazteko taldea behar da". Bestalde, haur nahiz gazteek "zer ahalmen duten" gogora-razi zuen. Erronka hauekin borobildu zuen jardunaldia; hasteko, saretu beharra dago, egindakoa ezagutarazi behar da, dagoen materiala euska-ratu edota profesionalen for-mazioa sustatu behar da. Helburu horiei guztiei heltze-ko, ordea, baliabideak behar dira.

**"ONDO GAUDENEAN
HERIOTZAZ HITZ
EGITEN BADUGU
HOBETO. UNEA
HELTZEAN,
ERRAZAGOA
IZANGO DA"**

ARANKA
BERRIKUNTZAK

· Fatxaden estaldurak · Estalkien berriztatzeak
· Barruko berrikuntzak · Gremioen koordinaketa
· Igeltseritza orokorra

606 37 21 05 USURBIL

BORDATXO

taberna

Pintxo Bereziak

943 37 10 42

Okindegia-Gozotegia

LABE-GOXO

URDAINTZI S.L.
Eraikuntzak

urdaintzi@euskalnet.net

649 43 54 75
943 36 72 64

IT-ak egiten dira

ERAIKUNTZAK-OBRAK-ERREFORMAK



Azaroaren 21ean amaituko da saskiak eskatzeko epea. Produktu guztiak Zuberoako ekoizleenak dira.

Zuberoako ikastolen aldeko saskiak eskatzeko garaia da

Iaz 200dik gora saski saldu ziren Usurbilen. Ohi bezala, bi modutara egin daiteke saskiaren eskaera. Internetez, ikaskoli.eus web orrialdearen bidez enkargatu eta Usurbilera bidaltzeko eskatu. Edo NOAA! Kultur Elkartearen egoitzan bertan eskatu.

IMANOL UBEDA

2003. urtean hasi ziren Zuberoako ikastolen aldeko saskiak saltzen. Gabonen atarian egin da eskaintza hau, eta Zuberoako produktuez osatzen da. Beraz, saski bat erosiz, ikastolak babesteaz gain, bertako lehen sektoreko ekoizleak laguntzeko aukera dugu.

Zuberoan bi ikastola daude: Basaburuan, Aloseko ikastolan, 35 ikasle ari dira ikasten. Pettarrean, Eperra ikastolak 74 ikasle ditu gaur egun.

Gero eta ezagunagoak dira

Zuberoako ikastolen aldeko saskiek gero eta oihartzun handiagoa dute. Usurbilen aldez, hasiera-hasieratik dugu eskaintza honen berri. Orain Internet bidezko salmentari lehentasuna ematen zaio, baina duela gutxi arte, boluntarioak aritzen ziren heriz herri, saskiak saltzen. Eta horretan, usurbildar kua-drilla batekin lan handia egin du urteotan. Eta horretan segitzen du oraindik ere.

Euskarak ez du babes ofizialik

Iaz, guztira, 2.200 saski saldu zituzten. "Kopuru egokia da, bai ekonomikoki ikastolen beharrei erantzuteko, bai eta mozkinen eskaintzan", Zuberoako ikastoletako ordezkariak aditzera eman dutenez.

Ipar Euskal Herrian, euskarak ez du babes ofizialik. Beraz, "euskara hizkuntza gutxiagotua gelditzen da gure lurraldean. Euskararen etxeko transmisioa Zuberoan eteten ari den heinean, ikastolek dute euskararen transmisioa bermatzen. Beraz hobe, gaurdunik gure esku dagozten dinamika martxan jartzea, bihar eta etorkizunean autonomia handiago batekin bizitzeko gisan. Hortan datza ere saski salmentaren funtsetako bat".

Zuberoako ikastolen aldeko kanpaina hau gero eta ezagunagoa bada ere, "nahi genuke saretze lan hau lurralde guzietarat hedatu, salmentari buruzko informazioa zabaltzeko eta saskiak erosteko

aukerak errazteko. Interesatua duen orok jarrai dezake proiektu honen garapena, ikaskoli.eus gure web orriaren bitartez harremanetan sartuz".

Basabürüa, erabat biologikoa

Aurten, berritasunekin datoz saskiak. Basabürüa izenekoa biologikoa izango da bere osotasunean. "Saski hau mugatua izanen da 550 saskitara, laborariek ezin dutelakotz gehiago segurtatu, tokiko laborariek ari gara eta Xiberoa ttikia den bezala laborantsa etxeak ere", kanpaina honen sustatzaileek aditzera eman dutenez.

"SASKIAK ORAIN ESKATU BEHAR DIRA. IRITSI, ABENDUAREN ERDIALDEAN IRITSIKO DIRA USURBILERA"

Hiru saski aukeran

Aurten ere, hiru saski ezberdin prestatu dituzte. Baina honakoan, eskaintza eta prezioak berrikusi egin dituzte. Hauek dira aukeran dituzuen hiru saskiak:

Pettarra (52 euro)

Ahate gibel berrosatua, ezti, ardi gazta kiloa, bixkotx gaztatua eta pastak.

Arbaila (57 euro)

Eztia, bixkotx artisanalak, kilo erdiko bi gazta zati, bixkotx gazituak, erreximienta, tisanak eta pastak.

Basabürüa (70 euro)

Xerri pate, ardi gazta kiloa, lukainka idorra, ezti, piereezti, sagar juja eta pastak.

Nola eskatu dezaket saskia?

Zuberoako ikastolen aldeko saskiak azaroaren 21era arte eskatu daitezke. Saskiak ordea, abenduaren erdialdean iritsiko dira. Bi modutara eska daitezke:

- NOAA! Kultur Elkartearen egoitzan.
- Internetez, ikaskoli.eus web orrialdearen bidez enkargatu eta Usurbilen jaso nahi duzula zehaztu bertan.

Saskia NOAA!ren egoitzan jaso ahal izango da, edota Usurbilgo Santomas azoka egunean bestela: abenduaren 14an, Nafartarren postuan.



"Hasieran argazkiak edozerri ateratzen nizkion, baina eskolan ikasten konturatu nintzen kiroletako argazkiak ateratzea gustatzen zitzaidala", aitortu du Ekhi Manterolak.

"Nire ametsa Anoetan Errealarekin argazkiak ateratzea da"

EKHI MANTEROLA E.M. STUDIO

Ekhi Manterola Encinasek (Kalezar, 2008) oso argi izan du txikitatik argazkilaria izan nahi zuela. Kamera duela gutxi erosi duen arren, argazkilaritza geroz eta gehiago gustatzen zaiola adierazi digu. Denboraldi honetan, Usurbil KE taldeko argazkilaria ofiziala da.

ASIER GONZALEZ DE SAN PEDRO
Usurbil KE eskubaloit taldeetako argazkilaria zara. Nondik dator-kizu zaletasuna?

Aurten hasi naiz argazkiak ateratzen. Nik txikitatik izan dut gogoa eta ilusioa argazkilaritzarekin. Donostian eskola batean izena eman nuen eta argazkilaritza ikasten hasi nintzen.

Hasieran argazkiak edozerri ateratzen nizkion, baina eskolan ikasten konturatu nintzen kiroletako argazkiak ateratzea gustatzen zitzaidala.

Lagunei ateratzen nizkien argazkiak futboleko jolasten ari zirenean, eta gero eskubaloit taldearekin hitz egin nuen eta argazkiak ateratzeko eta

sare sozialak eramateko esan zidaten.

Nola hasi zen harremana eskubaloit taldearekin?

Eskubaloit taldeko entrenatzaile batek galdetu zidan ea argazkilaritza gain sare sozialak eta kartelak egiten ba-

niekien, eta banekiela esan nien. Entrenatzaile horrek esan zidan oso ondo etorriko zitzaiela emaitzak eta partiden daten kartelak egiteko eta baietz esan nien.

EM Studio sortu duzu. Zer da sare sozialetarako edo leku fisiko bat?

"NIK EZ DUT DIRURIK IRABAZTEN LAN HONENGATIK, BAINA ETORKIZUNERAKO BALIOKO DIT"

"LAGUNEI ATERATZEN NIZKIEN ARGAZKIAK FUTBOLEAN JOLASTEN ARI ZIRENEAN"

Klasean nire lagun batekin sortu nuen izen bat da. Sare sozialak egin nituenean ez nekien zein izen jarri, eta adimen artifizialari eta lagunari galdetuz sortu nuen izena izan zen. Sare sozialetarako izen bat da.

Zer da argazkilaritza gehien gustatzen zaizuna?

Orokorrean niri dena gustatzen zait. Argazkiak politak ikusten direnean... Ez dakit nola azaldu.

Toki kuttunen bat argazkiak ateratzeko?

Lagunekin askotan joan izan naizena Aranerreka da. Eskola gainean parke bat dugu, eta eskolarekin bertara joaten gara. Hori ere polita iruditzen zait.

Argazkilaritza bizi al zara?

Nik ez dut dirurik irabazten egiten dudanagatik, baina etorkizunerako balio didala uste dut. Curriculumean esperientzia izan dudala erakusten du horrek. Etorkizunean gustatuko litzaidake argazkilaritza bizi izatea.

Nire ametsa edo helburua Anoetan Errealarekin argazkiak ateratzea da.

Argazkilaritza afiziotik ofizio izatera lortu nahi duzu?

Nik txikitatik argi nuen argazkilaria lanak egin nahi nituela. DBHn ez nuen ideiarik, baina kamera erosi dudanez gehiago gustatzen zait argazkiak ateratzea eta horretarako ikasten ari naiz.

Erdi mailako gradu biko bigarren urtea hasi berri dut, eta orain arte argazkilaritza, diseinua eta web orrien sorkuntza ikasten ibili garen arren, orain argazkilaritza espezializatuko naiz.

Eskubaloit taldearentzat bakarrik ateratzen dituzu argazkiak?

Ez. Futbola ikustera noanean ere argazkiak ateratzen ditut, eta orain Orbeldi dantza taldeak Dantza Egunean argazkiak ateratzeko eskatu dit.



Iaz, Valentziako uholdeetan kaltetutakoentzako laguntza bildu zuten Santueneako frontoi ondoko lokalean.

"Hurbilduz" aurkeztu eta lokala inauguratuko dute Santuenean

Aginagan probatzen hasitako esperientzia pilotua orain Santuenean jarri nahi dute martxan Udalak eta Zabalduz kooperatibak. "Hurbilduz" proiektua aurkeztu eta bide batez, frontoi ondoko lokal berritua inauguratuko dute azaroaren 20an.

ARITZ LASARTE

Hitzordu bikoitza azaroaren 20an Santuenean. Kokagune bera izango dute Usurbilgo Udaletik iragarritako bi deialdiek; auzoko frontoi ondoko lokala. Arratsaldeko 18:00etan hasiko da ekitaldi sorta. Izan ere, lehenik eta behin, Hurbilduz proiektua aurkeztuko du Udalak Santuenean, bertan auzo-zaintza egitasmoa abiarazi nahi duelako, "auzoaren baldintzak horretarako ezin hobeak direla pentsatuta". Xehetasunak "Udaleko eta Zabalduz kooperatibako ordezkariak azalduko dituzte proiektuaren nondik norakoak eta datozen aste eta hilabeteetan eman nahi dituzten pausoak". Gogoan izan, biek, Udalak eta Zabalduz koope-

ratibak lau urterako lankidetzak hitzarmena sinatua dute aipatu proiektu hau garatzeko. Zabalduz-eko bi kide ari dira, "Adinberri fundazioaren bidez, Hariak programaren" baitako Gipuzkoako Foru Aldundiaren laguntza jasotako egitasmo hau jorratzen. Usurbil herri zaindzaileagoa bilakatzeko bidean, "Aginagan hasi zen proiektu pilotu hori probatzen,

eta orain, Santuenean jarri nahi da martxan, duen kokapena eta ezaugarriak kontuan hartuz, leku ezin hobea dela irizita". Horretarako, auzoko 80 urtetik gorako bizilagunak elkarrizketatu nahi dituzte. Egitasmoaren berri jaso dezaten antolatu du Udalak hilaren 20ko hitzordua, baina horrez gain, gutun bana helaraziko zaie aipatu auzokide

"SANTUENEAN JARRI NAHI DA MARTXAN, DUEN KOKAPENA ETA EZAUGARRIAK KONTUAN HARTUZ"

"ESPazio HORRI ETEKIN GEHIAGO ATERATZEKO PROPOSAMENAK ADOSTU DITU UDALAK"

horiei guztiei, "proiektuaren berri eman eta parte hartzera gonbidatzeko". Mintzagai dugun egitasmoak bi lan-ildo izango ditu, Udaletik jakinarazi dutenez. "Batetik, bakardade egoera hauskorrean egon daitezkeen pertsonekin Bizi Planak egingo dituzte, akonpainamenduarekin batera: pertsonaren nahiak erdigunean jartzen dituen plan pertsonalizatuak dira, euren ongizatea eta gizarteratzea bultzatzeko, bakardadeak pertsonengan sortzen duen narriadura fisikoa zein psikologikoa atzeratzea helburu. Bestetik, sentsibilizazioan eta aktibazioan oinarrituko den lanketa komunitarioa egingo da: zaintza sare komunitarioak indartzea izango da helburua, eta zenbait kasutan, berriak sortzea".

Lokalaren inaugurazioa

Hurbilduz proiektuaren aurkezpenean aipatu frontoi ondoko lokalaren goiko solairuan izango da. Segidan helduko diote arratsalde horretarako programaturiko bigarren hitzorduari, baina lokal beraren beheko solairuan. Izan ere, aipatu gune hori inauguratu asmo dute. "Batez ere, biltegi gisa erabili izan da orain arte, eta espazio horri etekin gehiago ateratzeko proposamenak adostu ditu udalak Auzo Planelako talde motorrarekin eta Santuenea kultur elkartearekin", Udaletik azaldu dutenez. Horren harira, egokitzapen lanak egin dituzte bi solairuetan. "Guztira, 20.000 euro inguru inbertitu dira. Goiko solairuan, kirola egiteko bi makina eta billarreko mahaia jarri dira. Beheko solairuan, berriz, lurra berritu eta paretak margotzearekin batera, sukalde bat jarri da. Sukaldeko hainbat elementu berrerrabiliak dira, Eguneako Zentroa haur eskolaren eraikinean zegoenekoak baitira. Zentroa Egurtzegira pasatu zenean ere, hango zenbait mahai, aulki eta butaka ere Santueneko lokal horretara eraman ziren".



Bizkarreko skate parkean kaltetutako hondeamakina, Udalaren argazkian.

Bizkarreko skate parkeko obren eremua kaltetu dute

Aurreko astean ere "gorabeheraren bat" izan ostean, Bizkarreko skate parkea berritzeko lanetan ari den hondeamakineko beira apurtua agertu zen aste hasieran. "Udal-gobernuak gertatutakoa gaitzetsi du, halako jarrerak Usurbilen lekurik ez dutela gogoraraz-

tearekin batera". Legealdi Planean jaso bezala, kirol ekipamenduak mantentzeko lanen baitan eremu hau berritzen ari da Udala. 135.671,15 euroko (BEZ barne) inbertsioa da. Udalak Zut Skateparks enpresari esleitu zizkion urriaren 21ean hasitako lanok.



Hunkituta jaso zuten Julenen senideek, gazte usurbildarrari eginiko omenaldia.

Hunkidura handiz oroitu dute Julen Lejardi Araolaza

Usurbil Kirol Elkartek aza-roaren 8an duela bi urte istripuz zendutako gazte usurbildarra oroitzeko omenaldi xumea baino hunkidura handikoa egin zuten Oiardo kiroldegiko pistan. Herriko dantzariak aureskua dantzatu eta Usurbil K.E.-ko jokala-

ri eta Julenen lagunak eskutik, lore sorta ederra eta Lejardik biziki estimatzen zuen esku-baloiko neurketa batean ateratako argazkia jaso zituzten anaiak eta gurasoek bertan zirenen txalo artean, "Kirol Elkarteari eta herri osoari eskaini zion guztiagatik".



Sutegi udal liburutegiaren ibilbidea oroitzuz hasi zuten ekitaldia.

Emakumeen historian bidaiatuz ospatu du Sutegik 20. urtemuga

20 urteko ibilbidea osatu du Sutegi udal liburutegiak. Azaroaren 7an ospatu zuten "Konpasetan: bidaia intimo bat emakumeen historian zehar" ikuskizunarekin. Emanaldia- ren hasieran, bi hamarkade- tako ibilbide emankorra errepasatu zuten. Gero, Susana

Cencillo soinu-jolearen eta Garazi Kamio idazlearen es- kutik aipatu emanaldian mur- gildu ziren. 20 urteon hasiera, orain artekoak bezala oparo joango da Sutegi udal liburu- tegian, urte amaierara arte osaturiko eskaintza oparoa- rekin.




Santuenean eginiko trebakuntza saioan antolatzaileek ateratako argazkia.

Sendabelarrak eta haien onurak ezagutzen aritu dira Santuenean

Azaroaren 7an, sendabelarrei buruzko bigarren eta azken saioa egin zuten Santuenean Leire Lazkanorekin. Auzo el- karteak antolaturiko hitzor- duaren bidez, inguruko sen- dabelarrak behatu eta ezagu- tu asmo zituzten. Ezagutza- rekin batera, "haien erabilerak

ulertzen eta haien onurak" baliatzen trebatu nahi zuten. Horrekin guztiarekin, "nor- berak bere koadernoan sortuko du inguratzen gaituen lur- rak eskaintzen dizkigun senda- belarrak jasoz". Kantu bazkaria antolatu du auzo elkarteak azaroaren 29rako.



Juan Martin Elexpuru Potxoenean izango da datorren astelehenean. GOIENA

Nafartarrak taldekoen zikloaren atarian

"Euskal erreferentziak eta kontakizun espainiarra" hamabostaldi kulturala antolatu dute hitzorduok.

Azaroak 17, astelehena

- 19:00 Hitzaldia Potxoenean: "Euskalduntze berantiarra eta beste ipuin batzuk".
- Hizlaria: Juan Martin Elexpuru.
- Zehaztasunak: "Hitzaldian euskalduntze berantiarren gaia jorratuko da, baina ez da gai bakarra izango. J.M. Elexpurren azken bi liburuak aurkeztuko dira: "Euskarazko izenak erromatar garaiko al-dare eta hilarrietan" (2024) eta "Euskararen mende magikoak (V-IXK.o.)" (2025). Gure hizkuntzaren antzinatea eza-gutzeko funtsezko obrak".
- Sarrera: doan.

Azaroak 18, asteartea

- 19:00 Hitzaldia Potxoenean: "Ipucua 1000 urte, Belmonte de Usurbil 650 urte".
- Hizlariak: Patxi Olabarria eta Iñaki Idigoras.
- Zehaztasunak: "Urteurren-tan kontatzen ez zaigun hori azaleratuko digu "Gipuzkoa-ko armaria, gure historiaren ispilu" liburuaren egilea den Patxi Olabarria Irizar antzuo-larrak eta Iñaki Idigorasen gogoetak izango dira".

Azaroak 21, ostirala

- 19:00 Asisko Urmenetaren "Sorgina banaiz" dokumen-tala eta solasaldia Sutejin.
- Zehaztasunak: "Gure men-dietan dantzan ari diren suak zeinek piztu zituen? Eta nola-koa da sorginaren irudia he-rrietako ospakizunetan? Sine-tsi ote dugu inkisidoreen kontakizuna? Ala bihotzak diotsu arbasoak zuzen zirela azken arnasa arte ziotelarik ez zekitela zer ziren akela-rreak?".

Azaroak 24, astelehena

- 18:30 Xoxe Estévez "Orígenes del nacionalismo en Euskal Herria (1893-1923)" liburuaren aurkezpena egilearen eskutik udal liburutegian.
- Aurkezlea: Breogán Estévez Goñi.
- Hizkuntza: elebitan.
- Zehaztasunak: Xoxe Estévez "Orígenes del nacionalismo en Euskal Herria (1893-1923)" liburuaren aurkezpena egilearen eskutik, Nafartarrak taldekoekin lankidetzan.
- Antolatzailea: Nafartarrak.
- Laguntzaileak: Udala eta Nabarralde Fundazioa.

Euskararen Egunari begirako zikloa

Abenduaren 3ko Euskararen Nazioarteko Egunaren harira, hainbat ekimen antolatzen hasiak dira herri eragileak. Hemen, lehenengo hitzorduen berri:

Azaroak 29, larunbata

- 17:00 "Zerua lapurtu dute" Porrotx, Marimotots, Pupu eta Loreren emanaldia Oiardo kiroldegian.
- Sarrerak: 8 eurotan usurbil-kultura.eus plataforman, azaroaren 3tik aurrera.
- Antolatzaileak: NOAUA! Kultur Elkarte eta Udala.

Azaroak 29, larunbata

- 22:00 Euskararen Gala Aginagako Eliza Zaharrean.
- Zehaztasunak: "gurean urteroko hitzordu bihurtu den festa. Aurkezleek gidatuta: bakarriketak, musikariak, magoa, dantza eta askoz gehiago! Adi, azaroan zehar

emango baitute artisten berri! Dena umorez zipriztin-dua!".

- Sarrera: 10 eurotan usurbil-kultura.eus plataforman.
- Antolatzailea: Aginaga Eliza Zaharra Elkargunea.
- Laguntzailea: Udala.

Azaroak 30, igandea

- 18:00 "Gaua" Euskarazko filma NOAUA!ren eskutik.
- Paul Urkijo Alijoren hirugarren film luzeak ikusteko aukera izango dugu. Gaua Yune Nogueiras du protagonista, Ane Gabarain, Elena Irureta eta Iñake Irastorza lagun dituela.
- Sarrerak: aurrez 6 eurotan usurbilkultura.eus plataforman eskuragarri. NOAUA! K.E. -ko bazkideek 4 eurotan erosi ahaliko dituzte kultur elkar-tearen egoitzan.
- Antolatzailea: NOAUA! Kultur Elkarte.

650 Usurbil Bizi otarra hornitzeko azken egunak

Azaroaren 16ra arteko epealdia dute Usurbilgo ekoizleek eta sortzaileek, 650 Usurbil bizi otarren zozketarako eskaintzak egiteko. Udalak, Kulturguneak eta Hurbilagok sustaturiko egitasmorako proposamenak gertuago.eus webguneko formulario bidez egin ahaliko dira igandera arte. Abenduan zehar, herriko saltokietan eginiko erosketen truke parte hartu ahaliko da otarrok etxeratzeko urte amaieran egingo den zozketan.

Azaroak 29, larunbata,

Hurbilagoren Udazkeneko Azoka

- 11:30-14:30 Azokako salmenta postuak. Pultsera tailerra Ziortzaren eskutik.
- 13:30 650 Usurbil Bizi otarren aurkezpena. Otarra ikusgai azokan zehar.

KzGunean hainbat ikastaro iragarri dituzte

Azaroa osoan 16:00-20:00 artean irekiko dute KzGunea. Hona hemen, urte amaierara arte antolaturiko ikastaroen berri:

- Azaroak 17-20, 18:00-20:00 "LibreOffice Writer. Zure testu dokumentuak sortu".
- Azaroak 21, 16:00-18:00 "Google Calendar. Zure denboraren kudeaketa hobetu".
- Azaroak 24-28, 16:00-18:00 "Mekanografia. Ikasi hutsetik".
- Abenduak 1-2, 09:00-11:00 "Gmail. Posta-elektronikoa baino gehiago".
- Abenduak 3-15, 09:00-11:00 "Eman lehenengo pausoak argazki ukituan GIMPeKin".
- Abenduak 16-19, 09:00-11:00 "Ikasi online banka modu erraz eta seguruan erabiltzen".

Informazio gehiago:

943 023 684
tutor.usurbil@kzgunea.net



Ana Merinok erdarazko idazketa tailer bat eskainiko du azaroaren 22an.

Hitzorduak astero liburutegian, urte amaierara arte

Azaroaren 7ko urtemugako ekintza bereziaren ondotik, hitzordu gehiago iragarri dituzte abendura bitarte.

Azaroak 19, asteazkena

• 18:00-18:50 Ixabel Agirresaroberen ipuin kontaketa 4-5 urtekoentzat.

Azaroak 22, larunbata

• 11:30-13:00 Idazketa tailerra (gazteleraz), Ana Merinoren eskutik. Izen-ematea liburutegian.

Azaroak 24, astelehena

• 18:30-19:30 Xoxe Estévez en "Orígenes del nacionalismo en Euskal Herria (1893-1923)" liburuaren aurkezpena egilearen eskutik, Nafartarrak taldekoekin lankidetzan.

Azaroak 26, asteazkena

• 18:00 Pello Añorgaren ipuin kontaketa 6 urtetik gorakoentzat.

Abenduak 4, osteguna

• 18:00-18:45 Yolanda Arrieta eta Ane Arzelusen "Pox, Mox eta Trumoi, ederra kasketa!" liburu aurkezpena. 2-6 urte bitarteko haurrentzat eta euren familientzat".

Abenduak 9, asteartea

• 16:45-17:45 Irakurketa-solasaldia gaztetxoentzat. 9 ur-

tetik gorako haur eta gaztetxoek zuzendua. Bideratzailea: Yolanda Arrieta.

• Karmele Mitxelenaren "Aitona Floren" liburu izango dute hizpide.

• Oharra: "liburuak jada eskuragarri ditugu Liburutegian bertan, saioaren aurretik lasai irakurri ahal izateko".

Abenduak 11, osteguna

• 18:30-19:45 Irakurketa-solasaldia.

• Zehaztasunak: "Solaldia Alaine Agirreraren bitartekaritzaz. Goiatz Labandibarren "Bekatu" izango dute hizpide.

• Oharra: Liburuak eskuragarri izango ditugu Liburutegian.

Abenduak 12, ostirala

• 18:30-19:45 Yolanda Arrieta liburu aurkezpena.

• Zehaztasunak: "Yolanda Arrieta, duela 30 urte idatzi zuen "Jostorratza eta haria" liburuaren berrargitalpena aurkeztuko du".

• Oharra: liburuak eskuragarri izango ditugu liburutegian.

Antolatzailea: Sutegi udal liburutegia.

Gozoak bueltan, herri zaintzaileagoaren alde

Usurbil, herri zaintzaileagoa bilakatzeko jorratzen ari den bidearen baitan, iazko azarotik aurtengo maiatzera eginko ekimenari segida ematen hasiak dira. Oinarrizko Lanbide Heziketako sukaldaritza-ko ikasleek ondutako gozoak dastatu ahaliko dira. Iaz, estreinakoz, "Herri zaintzaileak gozoak eskaintzen dizkizu: topatu eta gozatu!" lelopean egin ostean "eta izandako harriera ona ikusita, aurten ere martxan jartzea erabaki da. OLH Oinarrizko Lanbide Has-tapeneko ikasleek prestatutako gozoak herriko establezimenduetara eramaten ditu brigadak, bezeroek dasta ditzaten".

Azaroaren 7an, Ane eta NI ile-apaindegietan banatu ziztuzten, bezeroen artean. Sal-toki gehiagotan banatuko dituzte hurrengo hilabeteotan, baina baita eremu zabalagoan ere. Izan ere, "aurten, gainera, zaintza zerbitzuetara ere zabalduko dute ekimena: Egu-

neko Zentroa (Egurtzegin), Eguneko Arreta (Artzabalen) eta Egurtzegiko zaintzadun etxebizitzak".

2025-2026 ikasturteko egutegia

- Azaroak 7. Ane eta NI ile-apaindegia.
- Azaroak 21. Eguneko Zentroa.
- Abenduak 12. Lizardi liburu denda eta Arruti harategia.
- Urtarrilak 16. Laurok liburu denda eta Lurda mertzeria.
- Urtarrilak 30. Eguneko Arreta.
- Otsailak 13. Otar-Goxo eta Iratze natur denda.
- Otsailak 27. Egurtzegiko zaintzadun etxebizitzak.
- Martxoak 13. Alkartasuna kooperatiba eta Aizpurua okindegia.
- Martxoak 27. Eguneko Zentroa.
- Apirilak 24. Enar estetika eta Usurbil Optika.
- Maiatzak 8. Esnaola janari denda.
- Maiatzak 22. Eguneko Arreta.
- Ekainak 5. Egurtzegiko zaintzadun etxebizitzak.

Kudeatzaile berri bila, Santueneako Gure Elkarterako

Kudeatzaile berri bila dabil Usurbilgo Udala Santueneako Gure Elkartea jubilatuen bilguneko tabernarako. Horri begirako esleipena abiarazi du. Interesdunek azaroaren 20ra arte aurkeztu ahaliko dituzte proposamenak, aurreko esleipena irailean amaitu ostean. Ordutik, iraila amaieratik itxita dago taberna.

Lizitazio laburraren arrazoia

Udaletik ohartarazi dutenez, "esleipen berria ohi baino motzagoa izango da: bederratzit hilabeterako, gehienez". Zergatia ahal azaldu dute Uda-

letik. "Udalak jubilatuen elkartarekin eta Santuenea Kultur Elkartarekin izandako hartu-emanek agerian utzi dute tabernaren eredu aldaketa baten beharra. Hori egin ahal izateko, ordea, obrak egin behar dira, eta proiektua pres-tatu bitarteko epean taberna itxita egon ordez, lizitazio laburragoa egitea erabaki da".

Bide horretan, Udaletik iragarri dutenez, "abendu amaierarako edo urtaril hasierarako esleipen berria ebatzi ahal izatea espero du udalak, taberna ahalik eta azkarren irekitzeko.

2. Ibai-Ondo Backyard erronkarako izen-ematea

Martxoaren 28ko asteburuan egingo da 2. Ibai-Ondo Backyard erronka Santuenean. Izen-ematea azaroaren 17an irekiko da.

Orduero, 6,7 kilometroko ibilbide bat osatzean datza ekimenak. Ekimenerako izen-emate orokorra abenduaren 2an irekiko duten arren, aldeztu aurretik, herrikideek lehenago izango dute izena emateko aukera ibaiondobackyard.eus atarian; antolatzaileek kalera-turiko araudiaren arabera, azaroaren 17tik 28ra hain zuzen.

Usurbildarrek lehentasuna izango dute

25 plaza gordeko dira tarte horretan inskripzioa egoki bideratzen duten herrita-

rentzat, plaza horien baitan egongo dira Santueneako Ibai-Ondo elkarteko bost bazkideentzako plazak ere. Prezioa, 45 eurokoa izango da. Xehetasun horiek antolatzaileek plazaraturiko araudian dituzue. "Mesedez, irakurri arretaz. Oso garrantzitsua da lasterketa eguna baino lehen, dena ondo ezagutzea. Horrela denak hobeto funtzionatuko du!", gogorarazi dute. Araudia bera bere osotasunean eta erronkari buruzko xehetasun gehiago, Ibai-Ondo Backyard ekimenaren webgunean jaso ditzakezue.

Irisasi BTT probako maillota, izen-ematearen truke

Animatzen diren lehen 400 lehiakideek maillot bat jasoko dute opari gisa.

Zabalik dute urtarilaren 25ean egingo den Irisasi BTT Hotzak Akabatzen probako izen-ematea zabalik da. Hala egiten dutenek maillota jasoko dute opari. Izena ematen duten lehenengo 400 lehiakideek maillot bat jasoko dute opari gisa. Neurria aukeratzeko abenduaren 11ra arteko (iluntzeko 20:00ak arteko) epealdia finkatu dute antolatzaileek. Egun horretatik aurrera izena emandakoek maillotaren neurria dortsala jasoko duten egun berean hautatu ahalko dute, egun horretan geratzen di-



Aurtengo maillotak itxura hauxe du.

ren mailloten artean hautatu beharko dute.

BIZI EUSKARAZKO ZINEA NOAUAREKIN

GAUA

AZAROAK 30, igandea

18:00tan

SUTEGIKO AUDITORIOAN

SARRERAK: aldeztu aurretik salgai 6€tan usurbilkultura.eus plataforman. Bazkideek 4€tan eskuratu ahal izango dute sarrera bat NOAUA!ko egoitzan

noaUA





GuraSOS elkartearen lehendakari Joxe Mari Izetak azaroaren 4an Donostiako auzitegi atarian eginiko agerraldia.

"Prozesu judizialaren ondorioz, bi gertaera egiaztatuta geratu dira"

GuraSOSek agerraldia egin zuen aurreko astean, azaroaren 4an Donostiako epaitegi atarian. 2022an Zubietako erraustegitik Arkaitzerrekara izandako isuriaren harira ikertu gisa deklaratzeko hastekoak ziren Ekondakin eta Ekobal enpresetako zuzendaritzako kideak.

2022ko uztailaren 13an erraustegitik Arkaitzerrekara izandako isurketa kutsakorren auziaren harira, Zubietako erraustegiaren jardunari lotutako "Ekondakin eta Ekobal enpresetako zuzendaritzako kideak deklarazioa hartzeraz deituak zeuden iragan astean, baita lanen akten eta egiaztargarien igorleak ere", GuraSOSen arabera. Horren harira, azaroaren 4a agerraldia

egin zuen aipatu elkarteak Gipuzkoako hiriburuko auzitegi atarian. "Ez dakigu nola amaituko den prozesu judizial hau, baina horren ondorioz jada bi gertaera egiaztatuta geratu dira", elkarteko lehendakari Joxe Mari Izeta usurbildarraren esanetan. Batetik, "erraustegiak sortu behar ez zituen likidoak eta lixibiatuak sortzen zituela, eta horiei eman zitzaien irtenbidearekin,

ingurumen eta osasun arazo larriak eragin zituztela pertsonengan, baita gertaera hauetan erantzukizun pertsonalak daudela ere". Horrez gain, "badakigu, gainera, lixibiatu horiek oraindik ere ekoizten zirela 2024ko amaierara arte, orduan detektatu baitzen Ecofertera, Nafarroako Artaxoa herrira, eta Sade-rerra, Bilbora, garraiatzen zituztela, horrek sortu zuen

eskandalu eta erakunde arteko iskanbila guztiarekin. Oraingoz ez dakigu gaur egun ere lixibiatu horiek ekoizten diren eta zein irteera ematen zaien".

"Argitzen joatea"

Egunotako deklarazio hartzeekin GuraSOSek nahi du behingoz "argitzen joatea zer gertatu zen eta zer ardura dituzten gertatutako horren guztiaren aurrean". Izetak gogorarazi zuenez, "Guardia Zibilaren UCOMA delakoak egindako txosten bati erantzuten dio" deklarazioa hartzeko deialdiak, "Fiskaltzak eskatutako ikerketen esparruan, GuraSOSek eskatuta, eta Donostiako Instrukzioko 5. Epaitegiak bideratua". Aipatu UCOMA taldekoen txosten horretan, GuraSOSen esanetan, "erraustegiaren kudeaketan esku hartzeko organigrama zehazten du". GHK-ren arduradunak ageri dira bertan, Ekondakin eta Ekobal. Aldiz, "inputazioen zerrenda osatzerako orduan Ekondakin eta Ekobaleko zuzendaritzako kideak baino ez dira agertzen, baina ez da azaltzen zergatik ez dauden GHK-ko arduradun nagusiak, erraustegiaren funtzionamenduen organigramaren burua eta, adibidez, Eusko Jaurlaritzaren ingurumen-baimen lizentziak eskatzen dituen erakundea".

"GURASOSEK NAHI DU BEHINGOZ ARGITZEN JOATEA ZER GERTATU ZEN ETA ZER ARDURA DITUZTEN"

**EGIN ZAITEZ
BAZKIDE!**

www.noaua.eus

ARRANDEGIA
PELLO
9:00-13:30
ASTEARTETIK LARUNBATERA
PUNTAPAX 7, 650 31 31 91

Uraitz, s.l.
Igeltseritza
Orokorra
693 059 392
uraitz@uraitz.com USURBIL

ZENDOIA
ENE taberna
Kale Nagusia 35, Usurbil



Azaroaren 19an antolatu dugun NOAUA! Jardunaldian, Mattin Solis eta Idoia Torregarai hartuko dute parte.



Muturreko jarreretan ez erortzeko gako bila

Inor gutxi dago gailu digitaletatik salbu. Muturreko jarrerak bogan diren honetan, ezinbestekoa da tresna digitalen erabilera osasungarria sustatzea. Azaroaren 19rako antolatu dugun jardunaldian, gako batzuk jaso ahal izango ditugu.

IMANOL UBEDA

NOAUA! hedabidea Usurbilgo kontuez aritzeko eta usurbildarrei boza emateko sortu zen. Euskaratik eta euskaraz. Denborarekin, Usurbilgo komunitatearen kohesiorako tresna bilakatu da. Paperean zein digitalean. Hortaz, zuzenean eta zeharka, erantzukizun handia dugu informazioaren eta komunikazioaren arloan.

Erantzukizun hori asumitzeaz gain, gure ekarpena egin nahiko genuke. Gure-gurea den arloan: komunikazioan. Eta arituak eta adituak diren lagunen bitartez. Horregatik antolatu dugu NOAUA! Jardunaldia izeneko ekitaldia.

Hausnarketarako tarte bat

Nagusiki pantailen bitartez komunikatzen garen honetan, ondo ari al gara? Hala ez bada, nola hobetu dezakegu gure arteko informazio-trukea? Egoki erabiltzen ote ditugu sare sozialak? Hizkuntzari lotutako gatazken aurrean, nola jokatu beharko genuke? Hari

mutur asko daude, eta denak oso jakingarriak. Horregatik, oso egokia iruditzen zaigu hausnarketarako tarte bat hartzea. Hedabide gisa; eta orohar, Whatsapp, Telegram, AI edota sare sozialetako erabiltzaile gisa.

'Adi entzun, gozo idatzi' jardunaldiaren helburuak

Azkenaldian, eta bereziki sare sozialen bitartez, muturreko jarrerak ugaltu dira eta joera horri aurre egiteko modurik ba ote den jakin nahi dugu. Horregatik jarri diogu jardunaldiari izenburu hori: 'Adi entzun, gozo idatzi'.

Arlo honetan, gazteak dira zaurgarrienak izan daitezkeenak. Horregatik, gazteen harreman zuzena duten taldeak eta hezitzaileak gonbidatu ditugu azaroaren 19ko jardunaldira. Sektore horretan ipini dugu fokua, baina jardunaldia interesa duen orori zuzendua dago.

Jardunaldiaren helburuak hauek dira:

- Alfabetatze mediatikoa sustatzea.
- Gazteen harremana duten eragileen artean, tresna digitalen erabilera osasungarriaren inguruko kontzientzia piztea.
- Herrira begira gaia sozializatu eta etorkizunera begirako bide bat irekitzea.

Partehartzaileak

Mattin Solis errenteriarra TEKS elkarteko kide da. Teknologia burujabetza, teknologia librea eta ekonomia soziala sustatzen duen elkarteko ordezkaria. 50 minutuko solasaldi bat eskainiko du eta segidan abiatuko da mahaingurua. Euren esperientziaren berri emateko, Idoia Arruabarrena Zumarte Musika Eskolako zuzendaria, Julen Nazabal Usurbil KE-ko kirol zuzendaria eta Ziortza gazte elkarteko Eneka Muñoz eta Jone Allur begiraleak gonbidatu ditugu. Idoia Torregarai UEUko komunikazio-arduradunak gidatuko du mahaingurua.

"GAZTEKIN HARREMANA DUTEN TALDEEN ETA HEZITZAILEEN ESPERIENTZIAK EZAGUTUKO DITUGU"



Azaroaren 19an, Potxoenean

NOAUA! jardunaldia: 'Adi entzun, gozo idatzi'

Hizpide nagusiak:

- Kirol, aisialdi, kultur eta bestelako taldeetan, nola erantzun komunikazio beharrei?
- Zein irizpide ditugu testu eta irudiak zainitzeko?
- Zein tresna edo sare sozial erabili?
- Nola ekin hizkuntzaren inguruko gatazkak?

Azaroak 19, asteazkena

- Tokia: Potxoenea.
- Ordua: 18:00-19:30.
- Sarrera: doan.
- Hizlaria: Mattin Solis, TEKS elkartea.
- Mahai-ingurua. Parte-hartzaileak: Ziortza Gazte Elkartea, Zumarte Musika Eskola eta Usurbil Kirol Elkartea.
- Gidaria: Idoia Torregarai.
- Gazteen harreman zuzena daukaten guraso eta hezitzaileei zuzendua.
- Antolatzailea: NOAUA! Kultur Elkartea.
- Laguntzailea: Eusko Jaurlaritzak, Kultura eta Hizkuntza politika saila.



Ia 28.000 lasterkarik bat egin dute 60. Behobia-Donostia lasterketarekin. UDALA

71 herrikide, 60. Behobia-Donostian

Azaroaren 9an eginiko 60. Behobia-Donostia lasterketa ezagunean, Aginagako, Usurbilgo eta Zubietako 71 herrikideek parte hartu zuten.

ARITZ LASARTE

Behobia-Donostia lasterketa arrakastatsuaren 60. edizioa egin zen azaroaren 9an. Giro eguzkitsuarekin, bero handirik gabe osatu zuten ibilbidea izena emana zuten ia 28.000 kirolarik. Haien artean ziren 71 herrikide; iaz baino gehiago, 2024an 59 izan ziren. Haien artean, bi herrikideek "erbi" moduan parte hartu zuten; Iñaki Añorga Unanuek eta Iñaki Gerica Juanek.

Aginaga

• Ander Aristegi Otamendi: 01:50:36

Zubietako

• Xabier Aizpurua Inchausti: 01:13:16
• Beñat Erauntzetamurgil Iparragirre: 01:24:54
• Unai Echeverria Olaiz: 01:35:10
• Javier López-Jacoiste Ortíz: 01:59:00

• Maialen Gabantxo Artola: 02:12:15

Usurbil

• Eneko Portu Irasuegi: 01:10:31
• Julen Larrañaga Balerdi: 01:12:56
• Beñat Bereziartua Urretabizkaia: 01:13:26
• Iñaki Añorga Unanue: 01:15:04
• Jon Guembe Urrea: 01:15:41
• Andoni Fiore Holgado: 01:17:55
• Iñaki Gerica Juan: 01:19:53
• Ander Orena Irureta: 01:20:26
• Irati Larrañaga Matxain: 01:22:20
• Elur Zaldúa Elortza: 01:24:54
• Imanol Plaza Ces: 01:27:11
• Jon Tapia Lizarraga: 01:27:13
• Ekhi Arrieta del Pico: 01:28:51
• Xabier Izeta Aramendi: 01:29:10
• Xabier Aranburu Leiva: 01:29:22
• Jon Galarraga Otermin: 01:30:04

• Maddi Lorenzo Olasagasti: 01:30:25
• Julen Elizasu Lertxundi: 01:30:31
• Ivan Ruiz Sanchez: 01:31:53
• Tito Izaguirre Godineau: 01:32:47
• Oinatz Toledo Zabala: 01:32:57
• Beñat Lujambio Ripa: 01:33:21
• Imanol Orbegozo Aizpurua: 01:34:45
• Manex Altuna Aizpurua: 01:35:04
• Alex Udabe Pagola: 01:35:07
• Ricardo Campos Silva: 01:35:18
• Oliver Garcia Linares: 01:36:45
• Juan Alberto Roman Carro: 01:36:53
• Noemi Santamaria Melero: 01:36:53
• Axier Dominguez Prieto: 01:37:37
• Aitor Aramendi Moreiro: 01:39:56
• Julen Lazkano Iturrioz: 01:40:13
• Salvatore Arruti Aramburu: 01:43:06

• Iñaki Etxebarria Orbegozo: 01:43:35
• Leire Samsó Usandizaga: 01:45:25
• Fabiola Becerra Encarnacion: 01:45:46
• Erramun Erro Aizpurua: 01:47:08
• Maialen Esoain Peña: 01:47:08
• Lara Guerra Montes: 01:48:01
• Eli Eizagirre Bruño: 01:48:13
• Aitor Vicente Palos: 01:48:37
• Sergio Montes Guerra: 01:49:24
• Oihane Juanena Muguruza: 01:49:32
• Nahia Arbizu Zabala: 01:50:23
• Martí Sanchez Juanola: 01:50:31
• Lucia Ucar Gonzalez: 01:51:19
• Maximo Garcia Sanchez: 01:51:27
• Eduardo Jauregui Torrecilla: 01:54:09
• Alazne Olaizola Iparragirre: 01:54:10
• Karmele Liceaga Alcantara: 01:54:17
• Joana Lertxundi Beristain: 02:00:23
• Esther Arrojeria Arantzazis-troke: 02:00:23
• Ane Aburruza Ucar: 02:00:23
• Maddi Altuna Aizpurua: 02:02:29
• Luisa Rodríguez Moreno: 02:05:52
• Amaia Aristegui Iturraran: 02:06:16
• Nadia Torrea Teijido: 02:07:31
• Arantxa Udabe Pagola: 02:08:25
• Endika Mendizabal Salaverria: 02:08:25
• Javier Martinez Manso: 02:15:29
• Maitane Rodas Alquizalet: 02:16:59
• Itziar Irazusta Larrea: 02:17:37
• Andrea Gomez Soage: 02:36:25

Sailkapen osoa, hemen ikusgai:
behobia-sansebastian.com

"GIRO EGUZKITSUAREKIN OSATU ZUTEN IBILBIDEA, IZENA EMANDAKO IA 28.000 KIROLARIK"



"Ezezagutza handia dago zein ereantza ekonomikotan dauden", azaldu du Plazaolak. ASIER GONZALEZ DE SAN PEDRO

"Neurriak hartu behar ditugu gure etorkizuna ez baldintzatzeko"

GARAZI PLAZAOLA UGARTE IRULE ABOKATUAK KOOPERATIBA

Garazi Plazaola Ugarte (1989, Legazpi) Irule Abokatuak kooperatibako kideetako bat da. Bikote harremanetan juridikoki babesteko neurriak hartu behar direla uste du, eta horregatik, hitzaldi bat emango du azaroak 20, 17:30ean Kalezarko Pelaioeneako Emakumeon Etxean.

"Familia eredu berriak eta legedi zaharra" hitzaldia eskainiko duzu Pelaioenean. Zertan datza?

Emakumeei bideratutako hitzaldi bat da. Helburua ez da lege erregulazioa begiratzea zehatz-mehatz. Gure esperientziatik sortzen da, kasu askotan, harremanak amaitzean bai gatazkan bukatzen direnean, bai gure inguruan ikusitakoarekin, ezezagutza nagusi dela ikusi dugu.

Bikote harremanetan edo elkarbizitza harremanetan elkartzen gara, eta ez diegu atentzioa jartzen hor sortzen diren

betebehar eta eskubideei. Hartzen goazen erabakiek eragina dute bai momentuan, baita etorkizunean ere. Ezezagutza horretatik askotan emakumeak kaltetuak izaten dira.

"BIKOTE HARREMANETAN EZ DIEGU ATENTZIOA JARTZEN HOR SORTZEN DIREN BETEBEHARREI ETA ESKUBIDEEI"

Horregatik, interesgarria iruditzen zitzaigun espazio horisortzea emakumeek egotera ezberdinak elkarbanatzeko, gako batzuk eman zein gaie-tan jarri behar dugun arreta

"KODE ZIBILAK GEHIENOK GOGOAN EDUKI DEZAKEGUN FAMILIA EREDU TRADIZIONAL HORI HARTZEN DU KONTUAN"

eta jakin nola funtzionatzen duten. Horrela, gatazka iritsi aurretik kontzienteki erabakiak hartzeko, eta bakoitzaren burua eta familiarena babesteko.

Zein izan daitezke ezezagutzatik hartutako erabaki horien ondorioak?

Ezezagutza handia dago zein eraentza edo erregimen ekonomikotan dauden; edo zein desberdintasun dagoen ezkontza eta izatezko bikote izatearen artean; edo zer gertatzen den horietako bat bera ere ez badugu hautatzen. Horiek harremaneko arlo ekonomikoan eragingo dute.

Eta etorkizunean, eraentza edo erregimen bat izateak ala besteak alargun pentsioa izateko eskubidean eragin dezake, zaintza lanak konpentsatzeko sistema ere aldatzen da. Horrelako gauzetan eragin dezake.

Dibortzio prozesua hasten denean jarraitu beharreko prozesua azaltzen dugu ere, besteak beste.

Familia eredu berriei ari zarenen, zertaz ari zara?

Horrekin adierazi nahi genue-na da, kode zibilak gehienok eduki dezakegun familia eredu super tradizional hori hartzen duela, non emakumeak etxeko lanak egiten dituen, gizona den etxetik kanpo lan egiten duena eta umeak dituen. Errealitate hori aldatzen doa, eta gauzak ez dira molde horretan bakarrik sartzen.

Gainera, hor ere sartu daitezke familia guraso bakarrekoak nola erregulatzen diren, zer eskubide dituzten, edo seme-alabak daudenean bikote tradizioaletik kanpo, hor zein zailtasun dauden ere kontuan izan behar da kode zibilak ez duelako aukera askorik ematen horien eskubideak bermatzeko. Gabezia horietaz hausnartzeko tarte-a ere egongo da hitzaldian.

Orain ere oso ohikoak bihurtzen ari dira momentuko bi-

—> kotea osatzen duten bi pertsonenak ez izatea seme-alabak; hau da, batenak izatea eta beste guraso bat izatea etxe horretatik kanpo. Aita edo ama zuzena ez den pertsona seme-alaba horien erreferente bihurtzen da, eta babes nagusi bat. Baina hor banaketa bat dagoenean edo erreferente horri zerbait gertatzen bazaio, legeak ez du erlazio hori bermatzen eta ez dago legean kontenplatuta.

Legedia molde berri horietara guztietara moldatu behar da?

Noski, ezkontzaren instituzio guztia, legeak babesten duen egitura hori guztia birpentsatu behar da. Hor pentsatu beharko litzake benetan zer nahi dugun babestu. Gero praktikara joanda, egoera berri horiek guztiak kontenplatu behar dira eta horiei ere erantzun bat eman.

Hitzaldiaren helburua zein da, bikote harreman batean dagoen bati laguntza eskaintzea?

Etengabe iristen zaizkigu bikoteak galdetzen ea ezkontzea hobeto den ala ez. Ematen du garai oso modernoetan bizi garela, baina nik uste dut oraindik ideia batzuk oso errotuta jarraitzen dutela, batez ere, seme-alabak datozenean edo etxea erosten dugunean edo dena delakoan, jendeari zalantza hori sortzen zaio. Gizartean oraindik errotuta dago ezkontza dela segurtasun gehien emango digun eraientza edo erregimen hori.

Guk tailer eta hitzaldi hauekin nahi duguna da azaldu zein aukera desberdin dauden, eta aukera bakoitzak eskaintzen diguna. Ez dago erregimen bat edo formula bat ona izan daitekeena jende guztiarentzat. Hor gakoa da aukera desberdinak ezagutzea, eta norberak hausnartzea zer egokitzen zaion hoberen. Gatazkan egon aurretik jendeak gai honi buruz hausnartzea nahi dugu.



"Helburua ez da lege erregulazioa begiratzea zehatz-mehatz", esan du abokatuak. ASIER GONZALEZ DE SAN PEDRO

Iruditzen zait horrek ere harreman osasuntsuagoak sortu ditzakeela. Agian, momenturen batean elkarrizketa deserosoak izan daitezke ez gaudelako kulturalki ohituak diruaz hitz egitera edo iruditzen zaigulako mesfidantza seinalea izan daitekeela. Eta guztiz kontrakoa da.

Zeintzuk dira gaur egun dauden tresnak?

Ezkontza eta izatezko bikotea, eta hortik kanpo beti egin daitezke notario aurrean itun desberdinak. Batez ere, ekonomikoari begira. Baina horrek, adibidez, ez liguke bermatuko alarguntasun pentsio bat. Hori bakarrik ezkontzen edo izatezko bikote izanda lortzen da.

"MEREZI DU MOMENTU DESEROSO HORIEK EDUKITZEA; GAI HAUEN INGURUKO KONTZIENTZIA HARTZEA"

Seme-alabak daudenean ere, notarioaren aurrean itunak egin daitezke?

Bai, noski.

Zergatik antolatu duzue azaroaren 20ko hitzaldia?

Iruditzen zait ematen dioguna baino garrantzia gehiago duela arlo honek, eta nagitasun handia eragiten digula. Agian ez da oso erakargarria gai honetaz hitz egitea, baina benetan eragin ikaragarria izan dezakeela gure bizitzan, gure etorkizunean, gure harremanetan... Horregatik, merezi du momentu deseroso horiek izatea eta kontzientzia hartzea.

Inertzia patriarkala da, eta inertziagatik da askotan emakumeek beren eskubideak edo beren gaitasun ekono-

mikoak eta abar alde batera uzten dituztela, familiaren ongizatearen alde, beste neurririk hartu gabe. Edozein erabaki izan daiteke egokia, noski, baina neurriak hartu behar ditugu horrek gure oraina eta gure etorkizuna ez baldintzatzeko.

Hitzaldia: "Familia eredu berriak eta legedi zaharra, nola uztartzen da hau?"

- Azaroak 20, osteguna.
- Arratsaldeko 17:30ean, Emakumeon Etxean (Kalezar).
- Hizlaria: Irule Abokatuak taldea.
- Zehaztasunak: "Ezkontza zaharkituta dago? Modernoa goa da ez ezkontzea? Nola antolatu dezaket elkarbizitza? Zein eragin izango du honek etorkizunean? Ezkontza, izatezko bikotea edo bestelako tresnak zein aukera eskaintzen dizkigute eta zein desberdintasun daude beren artean? Dibortziatzen banaiz zein eskubide ditut?".
- Antolatzailea: Usurbilgo Emakumeon Etxea.



"Nik hasieran karabana batean antzezten nuen antzerki hau", azaldu du aktoreak. OLVIDO FLORES

"Antzezlanak benetako bi istorio kontatzen ditu"

ESTEFANIA DE PAZ ASIN AKTOREA

Estefania de Paz Asin (Iruñea, 1981) Olvido Flores antzerkiaren aktore bakarra da. Igande honetan, azaroaren 16an, Sutegin ikusi ahal izango dugu, 18:00etan hasita. Bertaratzeko izena eman behar da usurbilkultura.eus webgunean, eta egunean bertan 5 euro ordaindu.

Zertaz hitz egiten du antzezlanak?

35 minutu irauten dituen antzezlan honetan Olvido Flores pertsonaiak, benetako bi istorio kontatzen ditu. Antzezlanak amaitzean, ikusleekin elkartzeko naiz eta benetako argazkiak erakusten dizkiet egiazkotasuna emateko, eta elkarrizketa txiki bat edukitzea.

Antzezlanak ahaztutako objektuen sukurtsal batean kokatzen da, eta bertako objektuak erabiliz bi istorioak kontatzen noa.

Lehenengo istorioa nire birraitonarena da. Tafallako udal albaitaria zen, eta 1936ko gerran desagertu zen. 1936an

txerrien izurrite bat egon zen, eta izurritearekin bukatzeko txerriak hil egin behar zirela esan zion jabeari. Txerrien jabeak, aldiz, bera lehenago hilko zela esan zion eta hala xe izan zen. 1978an Elo-n (Nafarroan) agertu zen hobi komun batean. Nire aitak

"IZENA ETA AHOTSA EMAN NAHI NIEN EDUKI EZ ZUTENEI ZORIGAIZTOKO GARAI HARTAN"

urrezko hortzengatik ezagutu zuen.

Bigarren istorioa Anastasini zirkuarena da. Iberiar Penintsulatik hainbat saio eskaini eta gero, 1936ko uztailaren 16an Lodosa-ra iritsi ziren, zoritxarrez. Lekukoek elefanteak, zaldiak eta 50 pertsona

"ZORTZI EMANALDI EMATEN NITUEN EGUN BATEAN, ETA ANTZOKIETAN EGITEKO MOLDATU NUEN"

inguruko zirkuak zela diote. Saio bakarra egin zuten, eta gero ihes egin behar izan zuten. Biktimen zerrenda ofizialan nire birraitona agertzen zen, baina zirkuak kideak ez.

Antza denez, Anastasini zirkuak kideak ez zituzten hil, baina bahitu egin zituzten eta tropak animatzen zituzten. Floridara ihes egitea lortu zuten, eta hori guztia bizi zuen pertsonak zirkuarekin jarraitzen du bere familiarekin.

Zergatik erabaki zenuen istorio horiek kontatzea?

Nik istorioak bilatzen ditut, istorioak erreskatatzen ditut eta gremioko kideentzat, justiziatia naiz. Nire aurreko istorioa Iruñeko funanbulista bat zen, ez zela historiara pasa. Eta haren istorioari esker, Anastasini zirkuaren istorioa iritsi zitzaidan, eta bihotza apurtu zitzaidan. Polita iruditu zitzaidan izena ematea zirkuari, eta heriotz erritual bat egitea. Izena eta ahotsa eman nahi nien eduki ez zutenei zorigaiztoko garai hartan.

Nola hasi zinen antzezlanarekin?

Nik hasieran karabana batean antzezten nuen antzerki hau, baina 25 ikuslek bakarrik ikus zezaketen saioa. Zortzi emanaldi ematen nituen egun batean, eta erabaki nuen antzokietara moldatzea.

Zure birraitonaren objekturik erabiltzen duzu antzerkian?

Nire birramonaren, alargunaren, josteko makinaren kutxa erabiltzen dut. Errealismoa transmititu nahi dut erabiltzen ditudan objektuekin.

Zer moduz doa bira?

Malagatik iritsi berri nago, eta hainbat sari jaso ditut.

Nolako harrera du ikusleen artean?

Ikusleei iristen zaiela uste dut. 36ko gerrako istorioak entzun dira, baina gerrarekin zerikusirik ez zuen jendeak hori guztia bizitzea bidegabekeria da.

MERKATU TXIKIA

ETXEBIZITZAK

ALOKAIRUAN

Usurbilen alokairuan hartzeko etxe edo logela baten bila nabil. 618 773 004.

10 urte Usurbilen alokairuan bizi den familia bat gara. Bost pertsona gara. Alokatzeko etxeren bat baduzu deitu: 68865344.

Etxebizitza bila dabilen familia gara. 688 653 441.

Usurbilen (erdigune edo auzoetan) alokairuan hartzeko etxe baten bila nabil. Pertsona bakarra naiz eta ez daukat animaliarik. Diru sarrera finkoak ditut. Harremanetarako: 630089127

MOTORRA

SALMENTA, GARAJEAK

Garajea salgai Etxealdian. 14 metro koadro. 685707278

Garaje itxia salgai herri sarreran. Harremanetarako: 646 601 947 (18:00etatik aurrera).

IRAGARKIA JARTZEKO:

NOAUA/KO BULEGOTIK PASA

ERREDAKZIOA@NOAUA.EUS

943 360 321

- Asteleheneko 12:00ak arte jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu.
- Iragarki berriak sartu ahala, zaharrak ezabatuko ditugu.
- NOAUAK ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

LANPOSTUAK

LAN ESKAITZAK

Oiardo kiroldegiko harreraren lan egiteko pertsona bat behar da, asteburuetarako. Interesatuak kurrikuluma bidali: jmerrasti@equiponeo.com

Aginaga sagardotegian asteburuetarako zerbitzari bila gabiltza: 943 37 06 68 / info@aginagahotela.com

Andatza taberna sukaldari laguntzailer bila dabil. 627841927.

LANPOSTUAK

LAN ESKAERAK

Sukaldeko laguntzaile lanetan edo pertsona helduak zaintzeko lan bila dabilen mutil arduratsu bat naiz. Erreferentzia onak ditut eta paperak eta gidatzeko baimena eguneratuta. 688676540

Orduka eta egunez, adineko pertsonak zaintzeko edo garbiketa lanak egiteko eskaintzen dut nire burua: 747 446 091.

Usurbilen bizi naiz. Pertsonen zaintza edo garbiketa lanetan aritzeko prest. Titulu soziosanitarioa dut. 645 067 560.

Lan bila nabil ume zaintzarako edo eskolako lan esfortzurako. Haurren

aisialdirako hezitzailea naiz eta esperientzia handia dut. 688 699 986

Usurbilgo emakume euskalduna naiz eta etxeak garbitzeko eskaintzen dut nire burua 615 724 543.

Orduka aritzeko lan bila nabil. Garbiketa lanak edo pertsonen zaintza aritzeko prestutasuna. 623443766

Pertsona helduan zaintzeko lan bila nabil. Titulazioa dut eta esperientzia handia. 618814363 (Marta).

BESTELAKOAK

Bigarren eskuko furgoneta edo kombi baten bila gabiltza. Harremanetarako: 626419583

LH6ko ikasle batentzat, euskara errefortzurako irakasle bat behar dugu Aginagan. 679 549 862.

Batxilergo 2. maila egingo duen ikasle bati matematika eta fisikako klase partikularrak emateko norbaiten bila gabiltza. 657714355

Frantses irakasle baten bila ari gara, DBH4ko ikasle batentzat. 615758476.

TELEFONO INTERESGARRIAK

Udala	943 371 951	Gure Pakea Egoitza	943 368 770
Atez ateko bulegoa	900 776 776	Gure Elkartea Egoitza	686 554 145
Udaltzaingoa	943 361 112	Arrate Zahar Egoitza	692 898 492
Egurtzegi	943 300 563	Salbatore Parrokia	943 361 239
Gizarte Zerbitzuak	943 377 110	Korreos - posta zerbitzua	943 362 894
Bake Epaitegia	943 372 336	Anbulategia	943 362 013
Oiardo Kiroldegia	943 372 498	Amenabar botika	943 376 076
Sutegi Udal Liburutegia	943 360 692	Iturralde botika	943 363 395
Potxoenea	943 371 999	DYA	943 464 622
Kzgunea	943 023 684	Gurutze Gorria	943 272 222
Zumarte Musika Eskola	943 371 594	Emergentziak	112
Etumeta AEK euskaltegia	607 609 379	Genero-indarkeria, arreta	016
Emakumeen Etxea	943 371 112	Gonzalez Ehorztetxea	943 362 163

HILDAKOAK



Jose Manuel Lerchundi Gurruchaga
Azaroaren 7an hil zen, 94 urterekin.



Zorionak Xanet! Azaroaren 15ean 8 urte beteko dituzu. Aurtengoa berezia izango delakoan, muxu haundi bat amaren eta familia osoaren partetik!

Ligako goleatzaile nagusia, Usurbil K.E.-n

Eskubaloi taldeen bilgunetik jakinarazi dutenez, senior mutilen lehen nazional mailan lehiatzen ari den taldeko jokalarietako bat, orain arte gol gehien sartu dituen sailkapenaren buruan da; Iker Nazabal Aisa usurbildarra da bera.

Lehen nazional mailako taldeak aurreko larunbatean Oiardon jokatu zuen asteburuko neurketan parte hartu zuen. 30-28 irabazi zion Zumaiako Pulpo taldeari.

Partidako lehen zatian, 12 gol egin zituzten usurbildarrek, 10 zumaiarrek. Usurbil K.E.-tik nabarmendu dutenez, tarte horretan, etxeko defentsa lanak berebiziko garrantzia izan zuen.

Bigarrenean, lehenengoan bezalaxe, oso paretsu joan zen partida. Lehenengo zatian, Axular Rekondo nagusitu bazen golegile gisa, partidaren azken txanpan Iker Nazabalen txanda izan zen.

Pilota Usurbilen

Azaroak 13, osteguna

- 20:15 Usurbilen infantilen banakako partidauk:

-Pagazpe (Harreguy)
-Urnieta (Fernandez)

-Pagazpe (Murua)
-Gazteleku (Zipitria)

Azaroak 14, ostirala

- 18:00etan Usurbilen Kadeteak banaka, Gipuzkoako txapelketa 2. Mailan:

-Pagazpe (Alejo M.)
-Hernani (Mendible)

- Jubenilak banaka Gipuzkoako txapelketa 1. Mailan:

-Pagazpe (Aburuza)
-Tolosa (Perurena)

- Nagusiak banaka Gipuzkoako txapelketa 1. Mailan:

-Pagazpe (Santxo)
-Alegia (Irazustabarrena)

Azaroak 15, larunbata

Benjamin kategoriako gaztetxoek Buruntzaldeako herrikoekin batera esku-pilotako topaketa izango dute Usurbilen, 16:00etan hasita.

AGENDA

EMAIGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI ASTELEHEN EGUERDIA BAINO LEHEN. Tel.: 943 360 321 / erredakzioa@noaua.eus

LARUNBATA 15

USURBIL Mutrikuko olatu plantara txangoaInformazio gehiago: sortalde.eus
09:00 Bordatxoko biribilgunetik:**TXOKOALDE** "Ametsen mundua" antzezlanSarrera: 2 euro, egunean bertan.
17:30. Txokoargin.

IGANDEA 16

USURBIL "Olvido Flores" ikuskizuna SuteginIzen-ematea: alde z aurretik usurbilkultura.eus plataforman.
18:00 Sutegin.

ASTELEHENA 17

USURBIL "Euskalduntze berantiarra eta beste ipuin batzuk" hitzaldiaJuan Martin Elexpuren azken bi liburuak aurkeztuko dira.
19:00 Potxoenean.

ASTEARTEA 18

USURBIL "Euskal erreferentziak eta kontakizun espainiarra" hitzaldiaHizlariak: Patxi Olabarria eta Iñaki Idigoras..
19:00 Potxoenean..

Patata Tropikala antzerki taldea Txokoargin arituko da larunbat honetan.

"Ametsen mundua" antzezlan Txokoalden

Txokoargi elkarteak Patata Tropikala konpainiaren antzezlan bat antolatu du larunbat honetarako. Arratsaldeko 17:30ean hasiko da eta sarrera 2 eurotan eskuratu ahaliko da emanaldi egunean bertan.

"Patata Tropikalak berriro ere izugarritzko abenturan murgilduko gaitu. Bertan, txotxongiloak, antzerkia, umorea eta irudimena dantzan ikusiko ditugu", antola-

tzaileek aditzera eman dute-nez.

Saio horretan, "zapatar batek zapatak saltzen ditu, baina ez dira zapata arruntak, ezin ditu edonork jantzi, ausarta, sentibera eta burua erabiltzen jakin behar da zapata hauek janzteko... Ametsek, gure protagonistak, zapatak jantziko ditu eta izugarritzko abenturan murgilduko da", aurreratu dute.

'Goazen kalera', azaroaren 18an Santueneko frontoitik

Astearteroko ibilaldi osasuntsua Santueneko frontoitik abiatuko da goizeko 10:30ean. Zubietako eskolako ikasleak izango dituzte bidelagun. Herritar orok parte har dezake hitzorduan. Amaieran, Oinarrizko Lanbide Heziketako ikasleek sukaldaturiko hamaiketako dastatuko dute.

Kantu-bazkaria Santuenean

Kantuari eskainitako larunbata izango dugu azaroaren 29a. Lehen-bizi, Usurbilgo Euskal Kantu Taldearen hileroko kantu-jira egingo da herri erdigunean barrena. 12:00etan Mikel Laboa plazatik abiatuko da. Segidan, 14:00etan, kantu bazkaria antolatu du Santuenea Kultur Elkarteak Aialde-Berrin. Hauze menua: txorizo egosia, bakailu tortila, saiheskia eta letxuga, gazta, irasagarra eta intxaurrak. Ura, sagardoa, ardo beltza, kafea. Kopa aparte. Prezioa: 33 euro.

Sebasek eta Kikek girotuko duten otordurako txartelak eskuratzeko azken eguna azaroaren 15a izango da. Santueneko Esnaola janari-dendan edo Artzabal jatetxean. Emaillez santueneake@gmail.com edo telefonoz 621 095 644. Emaillez nahiz telefonoz jaso ahaliko da haurren menuari buruzko xehetasun gehiagoren berri.**Zuen iragarkia hemen**✉ publizitatea@noaua.eus
☎ 747-486-835**Kima**
MASAJE LEKUA· KIROL MASAJEA
· MASAJE TERAPEUTIKOA
· KOLONAREN HIDROTERAPIA

Nagusia 44, behea LASARTE-ORIA 943 36 61 97

TXAPELDUN

ARDANGELA



EGUNEKO MENUA
PLATERAK
OGITARTEKOAK
RAZIOAK
ARROZAK
OILASKO ERREA

Muna Iurra 2, 943 49 88 83

noqua

Jardunaldia

ADI ENTZUN, GOZO IDATZI



- Kirol, aisialdi, kultur eta bestelako taldeetan, nola erantzun komunikazio beharrei?
- Zein irizpide ditugu testu eta irudiak zaintzeko?
- Zein tresna edo sare sozial erabili?
- Nola ekidin hizkuntzaren inguruko gatazkak?

*Gazteekin harreman zuzena daukaten guraso eta hezitzaileei zuzendua.

HIZLARIA

MATTIN SOLIS

TEKS elkarte

MAHAI-INGURUA

Parte-hartzaileak:

Ziortza Gazte Elkartea
Zumarte Musika Eskola
Usurbil Kirol Elkartea

Gidaria:

Idoia Torregerai



 Azaroak 19, asteazkena

 18:00-19:30

 Potxoenea

Antolatzailea:

noqua

Babeslea:

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

EROSI, AURREZTU ETA FRESKOTASUNA ERAMAN ETXERA!

30€
-tik

GORAKO
EROSKETEKIN,
POLTSA BAT
OPARI

FRESKOTASUNAREN
IRAULTZA
HEMEN HASTEN DA / III

hurbilago

Gure dendetan 30 eurotik gorako erosketa eginez gero, eraman poltsa isotermiko bat opari! Mantendu zure produktuak beti fresko eta gozatu bertako kalitateaz. Eskaintza honek lehen 50 erosleentzat balio du eta azaroaren 17tik aurrera hasiko da.

**EROSLE TXIKIEN
IRAULTZA! / III**

**BAT HASI, BESTEAK SEGI,
GUZTIOK BULTZA!
BERTAKOA GAL EZ DADIN
EGIN DEZAGUN IRAULTZA!**